


# GARBIKETA funtsezkoak gara!

## ANTOLATU eta BORROKATU!

## ¡Organízate y lucha!

**Post pandemia kurtsoa bukatuta, berria hasi genuen irailean eta kezkaz bizi dugu oinarrizkoak izan garenon lana aitortu gabe jarraitzen duela ikusteak. Garbitzaileak gara, Gipuzkoako eraikin publiko zein pribatuak garbitzen ditugunak, ikastetxeak, enpresak, supermerkatuak, bankuak edota eskatzak. Gu gabe ezin dira gainontzeko lanak aurrera eraman. Baina baieztapen hori ikusezin izaten jarraitzen du.**

Gipuzkoako garbitzaileon azken lan hitzarmena 2018koa da. Pandemiaren aitzakiarekin, gure eskubideen defentsa bigarren mailan jarri genuen, jendarte osoaren mesedetan. Baina bada garaia gu entzuteko. Azken bilera 2020ko ekainean izan zen. Ez patronalak ez gehiengo duen sindikatuak ez zuen mugimendurik egin negoziaketak bide onetik jartzeko.

Hitzarmena negoziatzen 2017an hasi zen arren, azken urtebete pasatxoan ez da mahai negoziatzailearen bilerarik egon. Gure aldarrikapen nagusia Gipuzkoako Garbiketa sektorean ere dagoen soldata arrakala ezabatzea da. Izan ere, eraikin eta lokaletako garbitzaileek 7.971,04€ gutxiago jasotzen dute urtean Kale Garbiketako kideekin alderatuta, gehienak gainera gizonak. Hau da, bien arteko aldea % 31,25ekoa da. Hori da soldata arrakala: gizonek eta emakumeek jasotzen dituzten lan sarien artean dagoen aldea. Baina arrakala soldata ezberdintasuna baino gehiago da. Eta hau, emakumeak garelako gertatzen da. Lan esparru feminizatuetan prekarietate handiagoa dago; emakumeen lana gizonezkoena baino gutxiago baloratzen da.

Langile guzti hauen errekonozimendua beharrezkoa da, eta horretarako LABek soldata duin baten aldeko borrokan jarraituko du. Bestalde, kontuan izanik sektore honetan pairatzen dituzten lanaldi partzialak, LABek lanaldi minimoen aldeko eskaera berretsiko du batetik eta baita ere, lanaldi partzialean lana egiten duten langileen konpentsazioa.

Nazkatu gara gehiengo horien adostasuna noiz iritsi zain egoteaz. Bagoaz gure behar eta eskaerak lehen lerrora ekartzea. Badugu nondik ikasi. Bizkaiko garbitzaileek, borrokaldi eredugarria egin dute LAB eta ESK sindikatuen babesarekin sortutako "Gora Garbitzaileak" plataformaren bidez. Borroka horrek bere fruituak eman ditu, eta Bizkaiko Hitzarmena berritzea lortu dute. Orain, gure txanda da!

Guzti honengatik, sinetsita gaude orain dela abagunea. Emakumeen borroka zein garbitzaileen lanaren balioa aho guztietan dabil bolo-bolo. Horregatik, lan honen atzean dauden langileen aurpegia eta lan zein bizi baldintzak agerian utzi nahi ditugu, eta hitzak hitzarmen duin batean bilakatu.

Gure lanaren bidez aberatsen den patronalari mezu argia bidaltzen diogu: soldata arrakala garbituko dugu! 1300X15 lortzera goaz!

LABek negoziazioari berrekiteko konpromisoa hartzen du, sektoreko langileak antolatu eta Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbiketako hitzarmena berriz ere negoziatzen hasteko baldintzak sortzearen aldeko apustua egiten dugu, bai urte hauetan galdutako eros ahalmena berreskuratzeko baita datozenetako lan baldintzak hobetzeko. Horregatik zaigu ezinbestekoa zure babesa.

Hemendik gutxira, zure enpresan hauteskunde sindikalak burutuko dira eta antolatzeak berebiziko garrantzia du; Horretarako ezinbestekoa da gehiengoak aldatzea. LABen hautagai izatera eta gure aldeko bozka ematera animatzen zaitugu. Gehiengoak aldatzeko garaia da.

**Zurekin bagara!**

---

1.300€ x 15 | No a las jornadas parciales impuestas

**1.300€ x 15**

**Inposatutako lanaldi partzialei EZ!**

LAB

**Afiliatu nahi baduzu sartu hemen**
*Si quieres afiliarte entra aquí*
**http://www.lab.eus/afiliatu**




# LIMPIEZA
# ¡Somos esenciales!
## ANTOLATU eta BORROKATU!
## ¡Organízate y lucha!

**Finalizado el curso post pandemia, comenzamos el nuevo en septiembre y vivimos con preocupación ver que sigue sin reconocerse el trabajo de quienes hemos sido esenciales. Somos limpiadoras, limpiadoras de edificios públicos y privados de Gipuzkoa, colegios, empresas, supermercados, bancos o portales. Sin nosotras no se pueden llevar a cabo el resto de los trabajos. Pero esa afirmación sigue siendo invisible.**

El último convenio laboral de las trabajadoras de limpieza de Gipuzkoa es de 2018. Con la excusa de la pandemia, pusimos en un segundo plano la defensa de nuestros derechos en beneficio de toda la sociedad. Pero ya es hora de que nos escuchemos. La última reunión tuvo lugar en junio de 2020. Ni la patronal ni el sindicato mayoritario hicieron movimientos para poner por buen camino las negociaciones.

Aunque la negociación del convenio comenzó en 2017, en poco más de un año no ha habido reunión de la mesa negociadora. Nuestra principal reivindicación es eliminar la brecha salarial que también existe en el sector de Limpieza de Gipuzkoa. De hecho, los limpiadores de edificios y locales reciben 7.971,04 € menos al año que los miembros de Limpieza Viaria, la mayoría, además, hombres. Es decir, la diferencia entre ambos es del 31,25%. Esa es la brecha salarial: la diferencia entre las primas laborales que reciben hombres y mujeres. Pero la brecha es más que la desigualdad salarial. Y esto pasa porque somos mujeres. En los ámbitos de trabajo feminizados hay más precariedad; el trabajo de las mujeres se valora menos que el de los hombres.

El reconocimiento de todas estas trabajadoras es necesario, y para ello LAB seguirá luchando por un salario digno. Por otra parte, teniendo en cuenta las jornadas parciales que sufren en este sector, LAB se ratificará en su petición de jornadas mínimas y en la compensación de los trabajadores que trabajan a tiempo parcial.

Nos hemos hartado de esperar a que llegue el consenso de esas mayorías. Vamos a poner en primera línea nuestras necesidades y peticiones. Tenemos de dónde aprender. Las trabajadoras de limpieza de Bizkaia han protagonizado una batalla ejemplar a través de la plataforma Gora Garbitzaileak, creada con el apoyo de los sindicatos LAB y ESK. Una lucha que ha dado sus frutos, que han conseguido renovar el Convenio de Bizkaia. ¡Ahora, nos toca a nosotras!

Por todo esto, estamos convencidas de que ahora es la ocasión. Tanto la lucha de las mujeres como el valor del trabajo de las limpiadoras circula por todas las bocas. Por ello, queremos visibilizar la cara y las condiciones de vida y trabajo de los trabajadores que están detrás de este trabajo y convertir las palabras en un convenio digno.

Enviamos un mensaje claro a la patronal más rica a través de nuestro trabajo: ¡limpiaremos la brecha salarial! ¡Vamos a conseguir 1300X15!

LAB se compromete a retomar la negociación, «apostamos por organizar a las y los trabajadores del sector y generar las condiciones para comenzar a negociar de nuevo el convenio de Limpieza de Edificios y Locales de Gipuzkoa, tanto para recuperar el poder adquisitivo perdido durante estos años, como para mejorar las condiciones laborales para los años venideros». Por eso nos resulta imprescindible su apoyo.

En breve se van a celebrar elecciones sindicales en tu empresa y la organización de las mismas es de vital importancia, para lo cual es imprescindible modificar las mayorías. Te animamos a ser candidato de LAB y votar a nuestro favor. Es hora de cambiar las mayorías.

**Zurekin bagara!**

---

1.300€ x 15 | No a las jornadas parciales impuestas

**1.300€ x 15**
**Inposatutako lanaldi partzialei EZ!**

LAB

**Afiliatu nahi baduzu sartu hemen**
*Si quieres afiliarte entra aquí*
**http://www.lab.eus/afiliatu**